

Mutil gihartsu eta neska panpoxak testuliburuetan

**Maiden lantzi
Goienetxe**

Teknologia baliabide pila bat izan arren, oraindik testuliburuetan oinarritzen da heziketa eta hauek ez dira jendartearen neurri berean aldatu. Hizkuntza eskolan ingelesa ikasten, kanta bat jarri digu irakasleak eta letren lagungarri han ageri da emakume bat maiteminez negarrez, klinexak eskaintzen dizkion gizonaren sorbaldan. Hitzek zer erraten zuten asmatzea ez da zaila.

Noiz edo noiz irri batzuk egin izan ditut garajeen gurasoen eskolako liburu

zaharretako astakeriak irakurtzen. Guretan agertzen zirenei so ere bai. Eta zer gertatzen da oraingoekin? Gizon indartsuak eta emakume panpoxak ez dira desagertu. Amek umeak zaindu eta bazkaria prestatzen dute aitek bulegoan lan egiten duten bitartean. Mutikoek futbolari edo mediku izatearekin egiten dute amets eta neskatek, aldiz, zuriz jantzita ezkontzearekin. Ez naiz esajeratzen ari; ikerketek erakusten dute genero aurreiritzi eta estereotipoak mundu osoko testuliburuetan errepikatzen direla (BBCn

argitaratu berri da erreportajea). Guztion begi bistan dago baina oharkabean pasatzen da. Gauza gehienak bezala. Horrek neska-mutikoengan zein ondorio dituen ere neurtu dute, eta ikusi dute, bertzeak bertze, nesken bizi, ikasketak eta lan proiektuak mugatzen dituela. Aurrerapausoak ematen hasi omen dira, Suedia buru dela, jakina, baina hagitx mantso. Bitartean, metodo alternatiboak proposatzen dituzte; adibidez, irakasleak detektibe paperean jartzea sexismoa identifikatzen. •

Erantziz pixoihalak

**Xabier Mikel
Errekondo**

PPk independentzia hotsen aurrean boterean betikotzeko nahikoa du ezagunak zaizkigun neurriak eta diskurtso itxiari eustea. Konplexuagoa da independentismoaren bide orria kudeatzea esparru soziopolitiko anitzaren eskutik (ANC, Omnium, PdCAT, ERC, CUP...). Gainera, aurrera egiteko herritarren gehiengoaren giharra behar du. *Procés*-aren bidean ugariak dira aldagaiak eta ez ditu alde bakarrak kontrolatzen. Ezinezkoa da aurreikustea pauso baten ondorengoa. Urriaren 3an gihar sozio-

politiko zabalenaren eta transbertsaleraren erakustaldia eman zen. Urriaren 10ean, adostutako Aldebakarreko Independentzia Deklarazioa aldarrikatu eta bozkatu behar zuen Parlamentuak, baina zazpi egunak luze egin ziren espetxeratze eta ondare-konfiskazioen mehatxupean. Sare sozialen irudiari helduz, Puigdemontek pixoihala jantzi zuen elkarriketaren izenean, jakinik Estatuak duela “nahiago Katalunia hilotz *una, grande y libre*-tik at baino” eta, honaino iritsita, 155.a aplikatu egingo duela bai ala bai. Jordi biak es-

petxeratzearekin, baina, Estatuaren baldarkeria politikoak aukera itzuli dio independentismoari, gihar eta babes sozialaren eklosioa eraginez. Kontua da Puigdemontek aste honetan bertan pixoihala erantziz eta Parlamentua deituko ote duen, Aldebakarreko Independentzia Deklarazioa onartzeko, ala *Procés*-a pixoihaletan itotzen utziko duen Raxoiri eskaini bi hilabeteak itxaroten. ...eta gure etorkizuna erabakitzeak aukera? Non ikusten ote du Urkulluk zirrikiturik Raxoierkin adosteko? Erantziz pixoihala lehenik. •